

# «Euskal Herriak ez gaitu anitz maite»

“Gaua etortzean eta lurra iluntzean, eta ikusiko dugun argi bakarra ilargiarena izango denean, ez dut beldurrik izango; ez, ez dut beldurrik izango, alboan zaitudan bitartean”.

Ben E. King-en *Stand by me* abestiko hitzak dira. Izen bereko ipuina oparitutako dizue Itxaro Bordak datorren astean ARGIAren irakurleei. Guk ere udan, gaua heldu eta irakurtzeko zerbait nahi duzunean, zure alboan egon nahi dugulako.

## GORKA BEREZIARTUA

Geroz eta presa handiagoz bidaiatzen dugun honetan, *Stand by me* ipuineko protagonistak Euskotrena hartu du Hendaiaetik Bilbora joateko. Ipuinak eskatzen zizun erritmo lasai hori?

Behin tren hori hartu nuen eta gustatu zitzaidan. Astiro zihoan, banuen denbora idazteko, pentsatzeko eta alfer gisa ibiltzeko. Uste dut orduan sortu zitzaidalda noizbait tren horretaz zerbait izkiriatzeko ideia eta ARGIAkoek, uda honetan, horren egiteko parada eskaini didate. Trenak asko erabili eta maite ditut nahiz ez den gustu arras femininoa. Baina zer egin dezaket? Abiadura handikoak eta motelago doazenak. Ipuinak behar zuen emekitasuna, isiltasuna kulunkaren loa segurtatzeko eta halatan pertsonaiaren bizitza psikikoaren harro arazteko.

**Protagonistak identitatea lapurtzen dio bagoian bidaide duen emakumeari, “izaerak ez dira finkoak” esanez. Bidaiatzean bestelakotu egiten al gara?**

Bai hala da. Bestelakotzen gaitu bidaiak, luzeenak bezain laburrenak. Etxetik eta ohiko ingurumenerik ateratzen garen bezain laster, harrizten gaitu zein ezberdinak izan gaitzkeen. Ez dugu ezberdintasun hori beti onartzen, bistan dena. Bidaiatzea mirail baten aitzinean egotea bezala da. Ipuin honetako pertsonaia mirailaren beste aldera pasatzen da,aldi berean paisaiatz eguna eta izenez ezezaguna zaion mundu batera heltzen dela. Alizia herrialde zoragarrian bezala doa protagonista, herrialde hau ordea beretzat tragikoa delarik, mina eragiten dion turrupiloa karrakatzera eramaten duelako, ama-alaben harremana hain zuzen.

**Ametsaren eta errealtatearen artean dabil pertsonaia, iraganeko mamuak atzetik dituela. Kanpora joatea al da mamu horiei aurre egiteko modu bakarra?**

Edo mamu horiekin zinez buruz-buru tematzeko modu bakarra. Noiztenka mamuen aztaparrek zitziak gaitzaten onartzekoa dugu, hondoraino erori eta sekula salbatzen baldin bagara, jakiten hasteko zer eta zein den funtsezkoa gure bizitzetan edo gure fikzioetan. Itzulerarik gabeko bidaiak dira gehienetan eta iruditzen zait ipuineko protagonista ez dela itzuliko.

**Bilbora iristen denerako Maritza Garai bidailagunarekin harreman berezia du. Bere bigarren ama dela esan dezakegu?**


Ez, Maritza Garai ez da narratzailearen bigarren ama. Ezin da hala izan. Ezen protagonistak badaki ama eta horrelako konzeptoekin ez duela bizitzerik. Laguna du, aitzakia, transfer bat, nortasuna usurpatuz bere istorioaren kordoka askatzea ahalmendu diona. Horregatik abesten edo erraten dio *Stand by me*, sinbolikoki baldin bada ere.

**Ametsean kostaldea azaltzen da. Noiztenka zure azken poema liburuan ere, kostaldeak –bereziki Bizkaikoak– protagonismo handia du. Zer du paisaia horrek hain iradokiztaile izateko?**

Kostako xendretarik Baionatik Bilbora oinez ibili den orok badaki, oin zolaren oinazez ardura, paisaia horrek zer duen hain iradokiztailea izateko. Ibilbidean zehar itsasoa eskubiko belarrian murrumaz entzutea da atsegina, hiriak eta herriak zeharkatzea, uharteak mires-



GAIZKA IROZ



Konstantinos Kavafisek Itakarainoko bidaia luzea izan zedila desiratzen zuen, portu ezezagunetan arribatzeko aukera edukitzeko. Bideak aberastu egiten zuen haren ustez. Bertatik bertara badabil ere –Hendaiatik Bilbora– Itxaro Bordaren *Stand by me* ipuineko protagonistak nahita luzatu du bere bidaia, tren lasaia hartuta. Ipuin honetakoa ez baita turismo bidaia, barrurantz egindakoa baizik. Eta barne turismoa, herri honetan, inoiz baino beharrezkoagoa da. Zer moduz udan hasiko bagina? ARGIAren eskutik duzu aukera.

tea, bere burua abandonatzea eta Ogelletan demagun, norberaren bihotz barnearen irudia harrapatzea, faltsukeria, espantu eta gorakoi-keriak baztertuz. Baudelairek zioen giza libreak itsasoa beti maiteko zuela, hala da gainera, Bardeetako mortuarekin batera, Euskal Herriak gure libertate indibidualaren bermagari itsasoaren ikusgarria oparitzen digu.

**Noiztenka-n bezala ipuin honetan ere erreferentzia alemaniarrik azaltzen dira zeharka herrien izenetan. Zergatik?**

Duela zenbait urte ezagutu eta ikasi dudana hizkuntza da alemandarra, gustatzen zait eta, oraindik gaizki mintzatzen naiz baina, iruditzen zait euskararen pare dela, hitzen moldatzeko eta naturako gauzen errateko poetikotasun handia duelako.

**Protagonistaren amak fikziozko alaba dela esaten dio ametsetan, aurretik hildako bi haurren lekua baino ez duela izan eta gainera neska izanda ezin zuela maite. Lehen aldiz hitz egiten dute garbi ama-alabek. Zerk eragozten zien lehenago horrela hitz egitea?**

Biak minaren oinarriaz jakinean zeuden baina ez zuten bekoz beko horretaz hitz egiteko ausartziarik aski ukan. Herioak eta nortasun ebasketak baimendu die solasaldi bortitza, tragikoa. Protagonistak, Maritza Garai bihurtu denean, antzerkia egiten du, fikzio bat bilaka-

tzen da eta fikzio bat bihurtuz azkenean bere errealitatea ukitzen du eta min egiten dio alaina. Urrunago joanez, ez nituzke ipuinaren idazteko erabili ditudan intentzioak sobera agertu behar, baina *Stand by me*, hain goretsia, errespetatua eta kantatua den Ama Euskal Herriarekiko neure edo gure harremanaz izkiriatzeko modu bat da enetzat. Ez gaitu anitz maite, ez ditu bere ume guztiak ezagutzen. Gertatzen da maiz trabezitu behar dugula, gure ustezko egia propioak isil araziz, ama horrek onar gaitzan bederen. Eta ez da beti lortzen.

**“Etxetik eta ohiko ingurumenetarik ateratzen garen bezain laster, harritzen gaitu zein ezberdinak izan gaitzekoen. Ez dugu ezberdintasun hori beti onartzen bistan dena”**

**Opor bidaia baino askoz sakonagoa da ipuineko hau beraz. Amaieran zer aldatuko da protagonistaren baitan?**

Protagonistak bidaia pasatu du berea ez den identitate bati esker bere amarekiko auzia zuritzen, Dantek ere infernua zeharkatu zuen Beatrizekin buruz buru aurkitzeko. Tragedia eta komediarako bere gaitasunaz ohartzen da: izate finkorik ez da, dena da jokoa, *performance* bat lerrakete ingelesen. Gauzarik seriosean azkenean, bidaiariarentzat, norberak bere baitan daukan bizitza da, hura da errealia eta ez muturik atxikitzen gaituen kanpoko mundu materiala. Barne bizitza hori dugu zaintzekoa eta bidaiatzen dugunean libratzekoa. Genero zehatzik ere ez duen ipuin horretako pertsonaiak nola. ■

**URRUTI SPORT**

PARAPENTE IKASTAROAK  
ETA BI LAGUNENTZAKO HEGALDIAK

Jose Maria Soroa 20 ■ 20013 Donostia ■ Tel/Faxa: 943 27 81 96 ■ e-posta: urruti@urruti.com ■ www.urruti.com